

DONOSTIA / 'Ilustratzailearen Txokoa' zabalduko da bihar

Iban Barrenetxea ilustratzailearen lanekin inauguratuko da bihar - Liburutegiaren Egunean- Ilustratzailearen Txokoa Donostiako Aieteko Kultur Etxean.

Egitasmo berri hau, Donostia Kulturak eta Galtzagorri Elkarteak jarri dute martxan elkarlanean, ilustratzaileen lana ezagu-tzera emateko helburuarekin. "Liburuen munduan, idazleen lana betidanik izan da onartuta, baina ilustratzaileen lana itzalean gelditu da askotan. Horregatik, Kultur Etxean jarriko den instalazio honen bitartez, irudigileen trebetasuna azpimarratu eta ezagutza areagotu nahi dugu", adierazi du Donostia Kulturak.

Txoko honek armairu itxura du eta bertan, ilustratzaileak ipuinetarako egindako ilustrazioez gain, ilustratutako liburuak, objektuak, eskulturak, bitxiak eta abar daude ikusgai.

Hiru hilabetez behin, ilustra-tzaile baten lanak hartuko ditu Ilustratzaileen Txokoak eta, esan bezala, lehenengoa Iban Barrenetxea elgoibartarra izango da. Oraingoan, Barrenetxeak sortutako bi liburu agertuko dira nagusiki: 'Bombástica Naturalis' eta 'El cuento del carpintero'. Liburu hauetako ilustrazioak erakustez gain, horiek inspiratu dituzten objektuak ere ikusi ahal izango dira. Bestalde, 'El Cuento del Carpintero'-ren booktrailerra ere ikusi ahal izango da.